

**Gipuzkoa**

Alto Urola Alto Deba Bajo Deba Bidasoa Buruntzaldea Costa Urola Oarsoaldea San Sebastián Tolosa Goierri

Sagardogintzako emakume «ekintzaileen» berri emateko erakusketa



Lourdes Odriozola historialariak gidatuko du bisita / MIKEL FRAILE

XVI. eta XVIII. mendeetako lau emakume gipuzkoarren historiak jasotzen ditu erakusketak: Maria Labayen, Maria de Echevarria, Ana de Beroiz y Fagola eta Maria Josefa de Orobiorenak, hain zuzen. Lourdes Odriozola historialariak gidatuko du bisita

DV

Martes, 5 marzo 2019, 16:45

0   ... 

Astigarragako Sagardoetxea sagardogintzaren inguruko museoak, zenbait ekintza antolatuko ditu ostegunean, martxoaren 7an, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira burutzeko. 'Emakume ekintzaileak sagardogintzan' erakusketaren bisita gidatua egingo dute Lourdes Odriozola historialariarekin, Harituz taldearekin elkarlanean, museoko sagarrondoak morez janzteaz gain.

Ekitaldiari amaiera emateko, sagardo dastaketa gidatua eskainiko dute. Euskal sagardoaren museotik jakinarazi dutenez, 12:00etan ekingo diete aurtengo Nazioarteko Emakumearen Eguneko jardueri, sagarrondo moreak piztuta. Sagar Uzta egunean Astigarragako Harituz taldeak iragarri zuen moduan, beraiek eskuz ehundutako estalki moreak baliatuko

dituzte zuhaitzak koloreztatzeko.

Jarraian egingo dute sagardogintzako andreen inguruko bisita gidatua, Lourdes Odriozolarekin batera. Erakusketan, XVI. eta XVIII. mendeetako Gipuzkoako lau emakumeren historiak daude jasota: Maria Labayen, Maria de Echevarria, Ana de Beroiz y Fagola eta Maria Josefa de Orobiorenak, hain zuzen.

«Ausartak, ekintzaileak, azkarrak eta horietako batzuk negozioen mundua ondo ezagutzen zuten emakumeak izan ziren, eta bakoitzaren bizimodua nahiz gainditu beharreko arazoak ezberdinak izan arren, emakume hauek lotzen dituen gauza bakarra sagardoa da», azaldu dute.

Bestalde, Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea ospatzeko asmoz, jarduera, bisita eta ekintza ezberdinak antolatu ditu Euskal Kostaldeko Museoen Sareak, eta Sagardoetxean «Emakume ekintzaileak sagardogintzan» erakusketaren bisita gidatuak izango dira martxoaren 3, 10, 17, 24 eta 31an, 11:00etan denak. Bisita gidatuotan parte hartzeko izena ematea derrigorrezkoa da, 943 550 575 zenbakian edo info@sagardoarenlurraldea.eus helbidera idatzita.

TEMAS Euskera

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Gipuzkoa

Top 50

- 1 Vecinos dicen haber visto a la madre «deambulando con el bebé horas antes» en Arrasate
- 2 «Vivimos con angustia, porque queremos que estén atendidos al 100%»
- 3 'Change the Change' centra en Donostia el debate sobre el cambio climático
- 4 Una avería en un avión y obras en una pista, razones de las últimas cancelaciones en Hondarribia
- 5 Ordenan el internamiento de la menor que abandonó a su bebé en Arrasate

